**UDALBATZAK 2014KO APIRILAREN 29AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila hamalauko apirilaren 29ko arratsaldeko 18:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira :

- Garazi LÓPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Irune BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKA ETXANIZ
- María RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ
- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Mª Ángeles MACHÍN RODRÍGUEZ
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mª del Mar CARRILLO GASCÓN
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Ignacio IRASTORZA GARCIA
- Marta BAREA JUARISTI
- José Manuel HERZOG DE BUSTOS
- Mª Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- José Manuel FERRADÁS FREIJO

Bilerara ezin zuelako etorri desenkusatu da Luis María DÍEZ GABILONDO (E.O. BILDU).

Bertan dago, egintza fedatzeko, Begoña BUENO BARRANCO idazkari nagusia.

Era berean, bertan dago Pedro ETXARRI OLLOKIEGI udal kontu-hartzailea.

**1. Ondorengo ebazpenen berri ematea:**

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 29 DE ABRIL DE 2014**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 29 de abril del año dos mil catorce, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Julen MENDOZA PÉREZ, los siguientes Concejales:

- Garazi LÓPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Irune BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKA ETXANIZ
- María RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ
- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Mª Ángeles MACHÍN RODRÍGUEZ
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mª del Mar CARRILLO GASCÓN
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Ignacio IRASTORZA GARCIA
- Marta BAREA JUARISTI
- José Manuel HERZOG DE BUSTOS
- Mª Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- José Manuel FERRADÁS FREIJO

No asiste excusando su inasistencia Luís María DÍEZ GABILONDO (E.O. BILDU)

Asiste y da fe del Acto, la Secretaria General Begoña BUENO BARRANCO.

Igualmente asiste el Interventor Municipal Pedro ETXARRI OLLOKIEGI.

**1.- Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 257**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**Alkatetzarenak (257 zk.tik 367 zk.ra) Zinegotzi-ordezkarienak (406 zk.tik 554 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.**

Idazkariak ondorengo ebazpenen berri eman du: Alkatetzarenak (257 zk.tik 367 zk.ra) Zinegotzi-ordezkarienak (406 zk.tik 554 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**2. Mailegua hitzartzeko finantza-babesari buruzko txostenaren berri ematea.**

Udaleko kontu-hartzaileak mailegua hitzartzeko finantza-babesari buruz 2014ko otsailaren 26an egindako txostenaren berri eman da; txosten hori espedientean dago.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**3. 2013ko likidazioaren gaineko dekretuen berri ematea.**

Udalbatzari Udaleko eta hiru patronatuen 2013ko Aurrekontua Likidatzeko dekretuen berri eman zaio.

Alkateak (EO BILDU) adierazi du dekretuak bidali direla, eta akats bat zegoela eta gaur goizean akatsa zuzenduta bidali direla dekretu berriak.

Maite Peñak (EAJ-PNV) adierazi du ez duela azken dokumentua ikusi, baina akats bat dagoela urtearekin, euskararen dokumentazioan azaltzen dela 2013koa, aldiz, gaztelaniazkoan, 2014koa. Esan du azkenekoa ez duela ikusi.

Alkateak (EO BILDU) esan du azkenekoa aurrean duela, eta aldatuta dagoela, gaztelaniazko nahiz euskarazko bertsioan 2013koa agertzen dela.

**al 367, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 406 al 554 ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

Se da cuenta de las Resoluciones del Alcalde (nºs. 257 al 367, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 406 al 554 ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

El Pleno queda enterado.

**2. Dar cuenta del informe de tutela financiera para concertación de préstamo.**

Se da cuenta del informe de tutela financiera para concertación de préstamo redactado por el Interventor Municipal con fecha 26 de febrero de 2014, el cual consta en el expediente.

El Pleno queda enterado

**3. Dar cuenta de los decretos de la liquidación correspondiente a 2013.**

Se da cuenta al Pleno de la Corporación de los Decretos de Liquidación del Presupuesto Ordinario 2013 y los tres Patronatos.

Interviene el Sr. Alcalde (E.O. BILDU) manifestando que se han remitido los decretos, pero que han detectado un error y que se han remitido de nuevo esta mañana, tras subsanar el error.

Interviene la Sra. Maite Peña (EAJ-PNV) manifestando que no ha visto el documento final, pero que ha detectado un error en el año, en el documento en euskara aparece 2013, mientras en el de castellano dice 2014. Vuelve a reiterar que no ha visto el documento final.

Interviene el Sr. Alcalde (E.O.BILDU) manifestando que tiene en las manos la última versión, y que tanto en castellano como en euskera aparece 2013.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

José Angel Rodriguezek (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) eskatu du dekretu bateko aldaketaren azalpenak emateko; jakin nahi du akatsa zergatik egin den.

Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) solicitando una aclaración en relación con la modificación realizada en uno de los decretos, quiere saber a qué se debe el error.

Kontu-hartzaileak esan du ekitaldia itxi ondoren konturatu zela gastuak zeudela Eusko Jaurlaritzak % 60an finantzatutako eskoletan. 2013an 114.000 euro gastatu ziren eta zenbateko horri zegokion finantzazioa 85.000 euro dira, eta aitortutako eskubide hori ez zen aurreikusi 2013an; beraz, 2013ko aurrekontuaren likidazioan aitortutako eskubidearekin izango lituzkeenak baino gastu gehiago jasaten ari zen. 85.000 euro zirenez, iruditzen zitzaion ekitaldia itxita egon arren interesgarria izango litzatekeela hurrengo urtea baino lehen erregularizatzea. Era berean, komentatu zioten akats batzuk zeudela gizarte-segurantzaren kontabilitatean, 120.000 eurokoak; ez zegozkien gastu horiei. Gizarte-segurantzari ordaindu behar ez zitzaizkion 120.000 euro horiek gutxituta doitu da. Ez zuen zentzurik dekretua zegoen bezala uzteak, horregatik dago 200.000 euro gehiago-gutxiagoko hondarra.

Interviene el Sr. Interventor manifestando que después de haber cerrado el ejercicio se dió cuenta de que había gastos en el tema de las escuelas financiadas en un 60% por el Gobierno Vasco . En el año 2013 se habían gastado por importe de 114.000 euros y la financiación correspondiente a ese importe son 85.000 euros y ese derecho reconocido no se había contemplado en el ejercicio 2013 con lo cual estaba soportando en la liquidación del presupuesto 2013 unos gastos superiores a los que tendría con el derecho reconocido. Al ser la cuantía de 85.000 euros le parecía que aún habiendo cerrado el ejercicio era interesante regularizarlo antes del año siguiente. De la misma manera le comentaron que había habido unos errores en la contabilidad de la seguridad social por importe de 120.000 euros, no correspondían esos gastos. Se hace un ajuste de minorar esos 120.000 euros de gasto que no había que pagar a la seguridad social. No tenía sentido mantener el decreto como estaba por eso hay un remanente de más menos 200.000 euros.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**4. 2014ko 1. hiruhilekoko kontuak ematea.**

**4. Dación de cuentas del 1er. trimestre de 2014..**

Udalaren 2014ko lehen hiruhilekoko kontuen berri eman da; kontu-hartzaileak aurkeztu ditu eta espedientean daude.

Se da cuenta de las cuentas del Ayuntamiento del primer trimestre de 2014 presentadas por el Interventor Municipal que constan en el expediente.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**5. Behin betiko onespena ematea Errenteriako aisialdi alternatiboko lokalak arauzten dituen udal Ordenantzari.**

**5. Aprobación definitiva de la Ordenanza municipal reguladora de los locales de ocio alternativo de Errenteria.**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Udalbatzak 2013ko azaroaren 26an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion Errenteriako aisialdirako lokalak arautzen dituen udal Ordenantzari.

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada con fecha 26 de noviembre de 2013, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza municipal reguladora de los locales de ocio alternativo de Errenteria.

Espedientea jendaurrean jarri zen 30 eguneko epean, eta horretarako G.L.H.A.O.ean iragarkia argitaratu zen 2013ko abenduaren 4an, eta baita 2013ko azaroaren 30ean "El Diario Vasco" eta "Gara" egunkarietan. Era berean ere udal iragarki taulan ikusgai egon zen.

El expediente se ha sometido a exposición pública por el período de 30 días, mediante inserción de anuncio en el B.O.T.H.G. de fecha 4 de diciembre de 2013, así como en el periódico "El Diario Vasco" y "Gara" de fechas 30 de noviembre de 2013, y el en Tablón de anuncios municipal.

Jendaurreko epean, hau da 2013ko abenduaren 5etik 2014ko urtarrilaren 13ra bitartekoa (biar barne), jarraian aipatzen diren alegazioak aurkeztu dira, Udaleko Idazkari Nagusiak egindako ziurtagirian adierazten duen arabera:

Durante el período de exposición pública, comprendido entre el 5 de diciembre de 2013 y el 13 de enero de 2014 (ambos inclusive), se han presentado las siguientes alegaciones, tal y como se desprende del certificado emitido por la Secretaria Gral. del Ayuntamiento:

| **Zkia. / Nº** | **Erregistro Data/ Fecha registro** | **Izena/Nombre** |
|---|---|---|
| 12364 | 2013/11/15 | Jorge Arranz Concha |
| 12552 | 2013/11/21 | Cristina Martin García |

2014ko apirilaren 2an, Udal Zerbitzu Teknikoko tekninkariek elkarrekiko txostena egin dute aurkeztutako erreklamazioei buruz jarraian aipatzen dena adieraziz:

Con fecha 2 de abril de 2014, por parte de los técnicos del Servicio Técnico Municipal, emiten informe conjunto en contestación a las alegaciones, señalando lo siguiente:

**1. zkia. Jorge Arranz Concha**

Adierazten du, Cristina Martin-ek bezala, ez zaiola ondo iruditzen itxiera-ordurik ez jartzea (24:00).

**Nº 1.- Jorge Arranz Concha**

Alega, al igual que Cristina Martín, que no se establece un horario de cierre (24:00h).

**2. zkia. Cristina Martin García**

**Nº 2.- Cristina Martin García**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Adierazten ditu honako kuestioak:

Lehena, ez dela itxiera-ordurik jartzen (24:00); bigarrena, sabaia soilik intsonorizatzen dela, eta hormak ez; hirugarrena, ordu batetik aurrera musika itzaltzeko betebeharra jarri beharko litzatekeela; laugarrena, 25 pertsonako gehieneko edukiera gehiegizkoa iruditzen zaiola, eta, bosgarrena, lehenengoarekin bat datorrena, itxiera-ordua ezartzeko eskaera egiten du.

Bi alegazioen erantzuna:

- Eibarko ordenantzan ezarritakoari dagokionez, kontuan izan behar da ordenantza horrek ordu jakin batera arte egiten diren jarduerak soilik arautzen dituela; beraz, jarduera horiek berak ordu horretatik aurrera egiten badira beste araudi batek arautu beharko ditu edo, are gehiago, arautu gabe geratzen dira. Argitu behar da doktrinaren parterik handienak ulertzen duela merkatu-ekonomiaren baitako enpresa-askatasuna Konstituzio-eskubidea denez, ordutegia lege lerruneko araudi bidez soilik alda daitekeela. Horrela, ikuskizunei eta aisialdiko jarduerei buruzko legeak baimendu du Eusko Jaurlaritzak arautzea ostalaritzako ordutegiak.

Elgoibarko ordenantzak aurreikusten du lokalek 22:00etatik 08:00etara izango duten erabilera eta zehazten du gaueko atsedenaldiko ordutegi horretan ez dela zaratarik egin behar (oihuak, kantuak, txistuak, moto edo autoen motorrak, etab.) topagunearen kanpoaldean.

Señala las siguientes cuestiones:

La primera, que no se establece un horario de cierre (24:00h), la segunda, que solo se insonoriza el techo y no las paredes; la tercera, que se debería obligar a que se apagase la música a cierta hora, y la cuarta, que el aforo máximo de 25 personas le parece excesivo y quinto, que coincide con el primero en el que solicita se establezca un horario de cierre.

Contestación a ambas alegaciones:

- Respecto a los establecido en la ordenanza de Eibar, debe de tenerse en cuenta que en ella lo que se establece es que la ordenanza solo regula las actividades que se realicen hasta un horario concreto, o lo que sería cambiar la activa por la pasiva, que las mismas actividades si se realizan a partir de ese horario se regularán por otra normativa, o lo que es todavía peor, no quedan reguladas. Debe clarificarse que la mayoría de la doctrina entiende que debido a que la libertad de empresa en el marco de la economía de mercado es un derecho constitucional, la reducción del horario solo cabría por una normativa con rango de Ley. Así la ley de espectáculos públicos y actividades recreativas expresamente permite que el Gobierno Vasco pueda regular los horarios de la hostelería.

La ordenanza de Elgoibar no solo prevé el uso de los locales entre las 22 a 8 horas, sino que determina que en dicho horario de descanso nocturno se debe de evitar los ruidos provocados por gritos, cánticos, silbidos, motores de motos coches etc., en el exterior del punto de encuentro.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Eraikuntzako kontu teknikoei dagokienez (hormen eta zoruaren intsonorizazioa, musika itzaltzeko betebeharra eta gehieneko edukiera), teknikari hauen ustez ordenantzan aurreikusitako neurriak erdietsi nahi duten helburuaren mailakoak dira eta herritarrek atsedenerako duten eskubidea babesten dute.

- Respecto a cuestiones técnico constructivas (insonorización de paredes y suelo, obligación de apagar la música y el número máximo de aforo), los técnicos que suscriben entienden que las medidas ya previstas en la ordenanza son proporcionadas al fin que persiguen, y salvaguardan el derecho de los ciudadanos al descanso.

Bukatzeko, udal teknikariek bere txostenean aipatutako arrazoiengatik adierazten dute alegazioak onartu egin behar direla baina ezetsi, eta ordenantza behin betiko onartu behar dela.

Concluyendo en el informe de los mencionados técnicos municipales, que por lo expuesto deben de ser admitidas a trámite pero desestimadas, y aprobada definitivamente la ordenanza.

Hirigintzako Batzordeak aldeko irizpena eman dio 2014ko apirilaren 8an.

Visto el dictamen favorable de la Comisión de Urbanismo de fecha 8 de abril de 2014.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones,

Ferradás jaunak (Ezker Anitza) adierazi du aurkeztutako alegazioez gain -txosten teknikoekin ondo erantzun direla deritzo-, komeni dela behin betiko onartzera doazen ordenantzaren osotasunaren gaineko iritziren bat ematea. Haientzat, tramitazio honen guztiaren helburua ezin zen eta ezin da izan lokal horiek desagertzea, gazteentzako aisialdiko espazio gisa finkatu baitira eta, gainera, erakunde publikoek eskaini ditzaketenez bestelako espazio gisa. Zifren arabera, 62.000 gazte inguruk erabiltzen dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko 29 urtez azpikoen % 20 inguruk badu horrelako lokalekin loturaren bat; beraz, zentzugabea izango litzateke gazteentzako topagune diren aisialdiko lokal horiek mugatzea. Alde bozkatuko dute, beren ustez ordenantza honek lokal horietarako baldintza hobeak arautzen dituelako. Bizilagunentzat ere garrantzitsua da; esan behar da gatazka-egoerak taberna batek edo aisialdiko bestelako lokalek eragiten dituztenak

Interviene el Sr. Ferradás (Ezker Anitza) manifestando que más allá de las alegaciones presentadas, que considera que están correctamente respondidas por los distintos informes de los técnicos correspondientes, sí que cabría hacer alguna apreciación sobre el conjunto de la Ordenanza ahora que se va a proceder a su aprobación definitiva. Para ellos en toda esta tramitación el objetivo no podía y no debe de ser la desaparición de estos locales porque se han consolidado como un espacio de ocio para la gente joven y además como un espacio de ocio distinto al que las instituciones públicas pueden ofrecer. Las cifras hablan de unos 62.000 jóvenes usuarios, casi un 20% de las personas menores de 29 años residentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco tienen algún tipo de vinculación con este tipo de locales, con lo cual sería absurdo, poner puertas al campo limitando los locales de ocio como espacio de encuentro para la gente joven. Van a votar a favor porque entienden que es una ordenanza que regula unas mejo-



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bezain sarriak edo urriak izan daitezkeela. Ez da inolako mesederik egiten badauden lekuetan arazoak puztuta. Bere ustez, ordenantza tresna egokia izan daiteke bizilagunek eta gazteek lokal horiek behar bezala ikusteko, alegia, topagune gisa. Parte hartu duten departamentuak zoriondu nahi ditu, bereziki, gazteriakoa, bere garaian burutu zuen prozesu partehartzaileagatik, pertsonen, erabiltzaile gazteen eta bizilagunen arteko topagunea bilatuz auzo-elkarteen bidez.

res condiciones para estos locales. También es importante para los vecinos y vecinas, hay que decir que las situaciones de conflicto pueden ser tan numerosas o tan poco numerosas como puede generar un bar u otro tipo de locales de ocio. Tampoco se hace ningún favor generando una especie de bola de nieve sobre los problemas exagerándolos, en aquellos lugares en los que surgen, cree que la Ordenanza va a ser una buena herramienta precisamente para que los vecinos y vecinas y la gente joven vean estos locales como lo que son, un espacio de encuentro. Quiere también felicitar a los departamentos correspondientes, especialmente al de juventud por el proceso de participación que en su día se llevó a cabo, intentando congeniar y buscar el punto de encuentro entre las personas , entre los jóvenes usuarios y usuarias y los vecinos y vecinas a través de las asociaciones de vecinos.

Herzog (PP) jaunak adierazi du esparru horretako edo hainbat alderdi tarteko diren beste edozein gizarte-gaietako ordenamendu funtsezkoa dela herritarren segurtasunerako, pertsonek elkar uler dezaten eta bakoitzak jakin dezan noraino iristen den bere eskubidea eta non dagoen horren eta albokoarenaren arteko muga. Ordenantza honen prozesu guztia eredugarria izan da, eta bere ustez guztiok zoriondu behar dute elkar.

Interviene el Sr. Herzog (PP) para manifestar que el ordenamiento en este ámbito o en cualquier materia social que comporte la presencia de varias partes, es esencial para la seguridad ciudadana, para el entendimiento de las personas y para que cada uno sepa hasta dónde llega su derecho y dónde se limita con el del vecino literalmente. El desarrollo de esta Ordenanza ha sido ejemplar, y cree que todos deben felicitarse.

Maite Peña andreak (EAJ-PNV) adierazi du ez duela zoriontzeko joera apurtuko, bere ustez ona baita horrelako harremanak eta gazteen aisialdirako lokal horien erabilera arautzen duen ordenantza bat izatea. Azaroan eman zitzaion hasierako onespena ordenantzari, gaur behin betiko onespena dakarkigu hona, sei hilabete pasa dira eta uste du ordenantza hori abian jartzeak aukera emango duela gazteen lokal horien erabilera normalizatzeko: metrajea, intsonorizazio-neurriak, lokalean egon daitekeen

Interviene la Sra. Maite Peña (EAJ-PNV) para manifestar que no va a romper la tónica de felicitaciones porque cree que es bueno tener una ordenanza que regule este tipo de relaciones y la utilización de estos locales para el ocio juvenil. La aprobación inicial de la Ordenanza fue en noviembre, hoy traemos la aprobación definitiva, han pasado seis meses y cree que la puesta en marcha de esa Ordenanza va a posibilitar que se normalice con un orden, el uso de esos locales de jóvenes en cuanto a



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

erabiltzaile-kopurua... Bere iritziz, erregulazio hori onerako da, baina, aldiz, eta elur-bola bat egin eta arazoa areagotzeko asmorik gabe, ezin dugu beste alde batera begiratu eta ukatu arazo bat badagoela, txikia, urte batzuetan desagertzea espero duena. Tabernek eta bestelako lokalek bezalaxe, lokal horiek bizilagunei eragozpenak eragiten dizkiete. Bere asmoa ez da arazoa areagotzea, baina egia da lokal horiek arazoak ematen dituztela, batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago, hori esaten dute inguruan horietakoren bat dutenek. Horregatik, hasierako onespenean, adierazi zuten ez zutela uste ordenantza horrek egoera guztiak bideratzeko aukera emango zuenik, erregulatzeko ezartzen diren neurriak ez baitira sentsibilizatzeko eta hezteko, alderdi guztiak hezteko. Horrelako ordenantzak onartu dituzten beste udalerri batzuetan erakutsi dute, sentsibilizazioan, alde biekin lan egitean eta lan-taldeak sortzean sinesten dute. Ordenantzari ongi-etorria ematen dio; bere ustez zati bat konpontzen lagunduko du eta guztiak gonbidatzen ditu bestearekin lanean jartzera, elkar ezagutzera, sentsibilizatzera eta heztera prozesu parte-hartzailean, guztion artean. Espero du hemendik bi urtera -muga gertagarria jartzearren- ez izatea arlo honen inguruko kexarik.

metraje, medidas de insonorización, numero de usuarios que puede permitir el local...Cree que esa regulación es para bien, pero por el contrario y lejos además de intentar hacer una bola de nieve y de magnificar un problema, no podemos ocultar ni echar la vista abajo y negar la existencia de un problema, pequeño, que espera que dentro de unos años desaparezca. Lo mismo que otros locales como los bares, estos locales en la misma medida generan unas molestias al vecindario. No es su ánimo engrandecer el problema, pero sí que es cierto que estos locales generan problemas, unos más y otros menos y esto lo constata la gente que tiene en su entorno alguno de ellos. Por eso en este sentido y en la aprobación inicial, señalaban que no creían que esta Ordenanza iba a posibilitar la reconducción de todas esas situaciones puesto que las medidas que se imponen para regular, no lo son tanto para sensibilizar y educar, educar a todas las partes. En otros municipios donde se han llevado a cabo ordenanzas de este tipo, ya lo han demostrado, creen en la sensibilización y en el trabajo con ambas partes y en el establecimiento de grupos de trabajo.. Da la bienvenida a la Ordenanza, que considera va a solucionar una parte e invita a todos a ponerse a trabajar en la otra parte, en el conocimiento mutuo, en la sensibilización y en la educación con este proceso participativo entre todos. Espera que dentro de dos años por poner una meta que pueda ser plausible, no estemos ya con quejas de este palo.

José Angel Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du beti gauza bera gertatzen dela, azkenengora iristen direnerako, ia guztia esanda dagoela. Guztiz ados dago gainerako taldeetako kideek esan duten guztiarekin. Ez du gauza askorik eransteko, pozik dagoela ordenantza honen lanarekin eta ibilbidearekin, gazteriako batzorde informatiboetatik hasita, taldeen ekarpenak,

Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que siempre ocurre lo mismo, cuando se llega al último ya se ha dicho casi todo. Por su parte están totalmente de acuerdo con todo lo mencionado por los compañeros de los diferentes Grupos. Tienen poco más que decir, satisfacción por el trabajo y recorrido que ha llevado esta Ordenanza,

guztia aurrera ateratzeko izan duten borondateaz pozten dira eta oso pozik daude ordenantza egin izanagatik; espero eta desio dute ordenantzaren jarraipena egingo dela gazteen eta bizilagunen jardueraren bateratasuna normalizatzeko, horrela guztiak izango baitira garaile.

comenzando desde las Comisiones Informativas de Juventud, la aportación de los diferentes Grupos, su disponibilidad para sacar adelante todo ello les congratula y están encantados con que se haya hecho la Ordenanza, esperan y desean también que se haga un seguimiento de la misma para normalizar la convivencia entre la actividad de los jóvenes y la de los vecinos principalmente, así ganarán todos.

Alkatea (EO BILDU) mintzatu da eta adierazi du Luisma Diez Hirigintzako zinegotzi eta bozeramailea aritu dela gai horrekin eta gaur ezin izan duenez hemen egon, eta berak hitz egingo duela haren ordez, harekin batera gazteen lokalen inguruko diagnostikoa egin zuelako, konkretuki 2011ko auzo-batzarretan. 2011ko urrian, azaroan eta abenduan egin zituzten auzo-batzarretan atera zen problematika bat, ez auzo guztietan baina bai gutxi batzuetan, bizilagun batzuek egin zuten kexa ez zegoelako araututa edo molestiak sortzen zituztelako gazteen lokal hauek. Uste du bereziki bi hiru auzo izan zirela problematika hori indar handienarekin aipatu zutenak. Eta horren aurrean, bi aukera zituzten: bata, araudi oso mugatu edo restriktiboa egitea, gazteen aukera horiek erabat murrizten zituena, edo, bigarrena, ulertzea fenomeno sozial bat dela. Hemen Errenteriako Ezkerrako bozeramaileak datu batzuk aipatu ditu, zenbateko okupazioa suposatzen duen, zenbat gazte mugitzen dituen fenomeno sozial honek, eta, beraz, fenomeno sozial bezala, elkarrizketaren bidetik eta prozesu parte-hartzaile baten bidetik konponbideak bilatzen saiatzea izan zen aukera. Hori dela- eta, martxan jarri zuten prozesu parte-hartzaile bat; hasiera batean mugatua izan bazen ere, ondoren, zuzendu egin zen, eta gazte-lokaletara bideratu zen zuzenean, gure teknikarien presentzia bertara eramanaz, eta ateratzen duten konklusioa da prozesua berez oso positiboa izan dela. Sentsibilizazioa aipatu da hemen,

Interviene el Sr. Alcalde (E.O BILDU) y manifiesta que ha sido Luisma Diez el concejal de urbanismo y portavoz el que ha tratado ese tema, y dado que hoy no ha podido estar presente, él tomará la palabra en su lugar, ya que realizó junto a él el diagnóstico, concretamente, en las juntas vecinales de 2011. En las juntas vecinales de octubre, noviembre y diciembre se mencionó una problemática; no en todas, pero sí en algunas, los vecinos se quejaron de que los locales no estaban regulados o de que generaban molestias. Cree que especialmente fueron dos barrios los que mencionaron con más fuerza dicha problemática. Ante eso, tenían dos opciones: una, preparar una regulación muy restrictiva, que limitara totalmente los movimientos de los jóvenes, o, la segunda, entender que es un fenómeno social. El portavoz de Errenteriako Ezkerra ha dado unos datos sobre la ocupación, sobre el número de jóvenes que mueve este fenómeno social, y por lo tanto, al ser un fenómeno social, la opción elegida fue intentar buscar una solución desde la vía de la participación. Por ello, iniciaron un proceso participativo; aunque en un principio fue limitado, posteriormente se corrigió y se dirigió directamente a los locales juveniles, con la presencia de nuestro técnicos, y la conclusión a la que se ha llegado es que el proceso ha sido muy positivo. Aquí se ha mencionado la sensibilización, y el proceso de sensibilización se ha realizado en el mismo proceso, ya que han participado jóvenes, vecinos y ciudadanos que viven el tema. Sin lugar a



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

eta sentsibilizazioa prozesuan bertan eman da, bai gazteek bai bizilagunek eta gaia bizitzen zuten herritarrek parte hartu dutelako. Eta zalantzarik gabe, aurrera begira ere joango dira baloratzen ordenantza horrek zer emaitza ematen dituen eta herritarren parte-hartze hori nola jarraitzen duten bultzatzen, sentsibilizazio hori bilatze aldera. Baina bere ustez lortutako emaitza nahiko positiboa izan da, bi arrazoi konkreturengatik: bata, ez duelako gazte fenomenoa kriminalizatzen, zentzu batean arriskua egoten delako askotan gazteak jartzea arazo guztien jo-puntu bezala eta azkenean bakan batzuk dira arazoak sortzen dituzten lokalak; kontuan hartuta zenbateko zenbakian ditugun gazte lokalak, gutxi batzuk dira. Beraz, jar dezagun problematika gutxi horietan, ez fenomeno osoan. Eta, bigarrena, ikusten dutelako hemen aurkitzen ari direla elkarbizitzarako aukera interesgarri bat; ikusiko dute nola funtzionatzen duen, eta funtzionatzen duen neurrian, hutsuneak ere aztertuko dituzte eta behar diren aldaketak egingo dituzte. Beraz, pozik daude egoera bati erantzuna ematen diotelako, eta espero dute erantzun hori ahalik eta positiboena izatea. Galdetu du beste inork baduen ezer aipatzeko eta publikotik komentatu dute hirugarren puntuan esan dutela “behin betirako onartzea” eta uste dutela fenomeno hori gaur, atzo eta bihar aldatu egingo dela eta araudiak behin betirako onartzea ezinezkoa dela. Alkateak eskerrak eman dizkio. Gaia bozketara atera dute.

dudas, seguirán valorando los resultados de dicha ordenanza y cómo seguir promocionando la participación ciudadana, de cara a la sensibilización. Pero en su opinión, el resultado ha sido bastante positivo, por dos razones concretas: la primera, porque no se criminaliza el fenómeno juvenil, ya que de alguna manera muchas veces suele haber riesgo de que los jóvenes sean la diana de todos los problemas, y al final son unos pocos los locales que generan problemas, teniendo en cuenta el número de locales. Por lo tanto, situemos la problemática sobre esos pocos, no sobre todo el fenómeno. Y, la segunda, porque ven que están encontrando un espacio interesante para la convivencia; verán cómo funciona, y en la medida en que funcione, analizarán las carencias y realizarán los cambios oportunos. Por lo tanto, están contentos, porque han dado respuesta a una situación, y esperan que esa respuesta sea lo más positiva posible. Ha preguntado si alguien tiene algo que decir, y desde el público han comentado que en el tercer punto se dice aprobar definitivamente, y creen que ese fenómeno cambiará hoy, mañana y pasado, y que es imposible aprobar las normativas definitivamente. El Sr. alcalde le ha agradecido su intervención. Sometida a votación.

Alkateak proposatuta.

A propuesta del Sr. Alcalde.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1º.- **Izapidatzea** aurkeztutako alegazioak erabaki

1º.- **Admitir a trámite** las alegaciones presentadas,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

honen azalpen zatian aipatzen direnak.

señaladas en la parte expositiva del presente acuerdo.

2º.- **Ezestea** aurkeztutako alegazioak azalpen zatian adierazitako arrazoiengatik.

2º.- **Desestimar** las alegaciones presentadas, por los motivos expresados en la parte expositiva del presente acuerdo.

3º.- **Behin betiko onespena** ematea ***Errenteriako aisialdi alternatiborako lokalak arautzen dituen udal Ordenantza-***ri, hasierako onespena izan zuen testu berarekin.

3º.- **Aprobar definitivamente** la ***Ordenanza municipal reguladora de los locales de ocio alternativo de Errenteria,*** en los mismos términos que el aprobado inicialmente.

4º.- **Jakinaraztea** erabaki hau alegazioak aurkeztu dutenei.

4º.- **Notificar** el presente acuerdo a los alegantes.

5º.- **Jakinaraztea** erabaki hau, Ordenantzaren testu bateratuarekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Tokiko Administrazioari, eta baita Gobernuaren Gipuzkoako Delegaziordetzari.

5º.- **Comunicar** el presente acuerdo, junto con el texto íntegro de la Ordenanza, a la Administración Local del Gobierno Vasco, así como a la Subdelegación del Gobierno en Gipuzkoa.

6º.- **Argitaratzea** Ordenantzaren **testu osoa** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, behin eta aipatutako erabakia Estatuko Administrazioari eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari jakinarazten zaienetik 15 egun pasa ondoren, Tokiko Erregimen Oiñarrietako Lege Erregulatzailearen 65.2 artikuluak xedatzen duenaren arabera.

6º.- **Publicar el Texto íntegro** de la Ordenanza en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, una vez transcurridos 15 días desde la notificación del referido acuerdo al órgano de la Administración del Estado, así como al de la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca, a los efectos de lo dispuesto en el art. 65.2 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local.

**11. Galdera-eskariak**

José Angel Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), bere taldearen izenean, alkateari eskatu dio argitzeko Errenteriako sarrerako biribilgunean ikurrinak jartzeak izan duen kostua, materiala jarri duen enpresaren izena eta zenbateko hori zein partidetatik atera den, material zuzenetik, publizitatekotik... Baita ere eskatu du adierazteko zein udal-langilek lan egin duen ekitaldi horretan, inork egin badu, hiri-mantenimendua, txistulariak,

**11.- Ruegos y Preguntas**

Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Socialistas Vascos -Euskal Sozialistak) , su Grupo solicita al Sr. Alcalde que se les facilite detalladamente el coste total que ha supuesto la colocación de las ikurriñas en la rotonda de entrada a Errenteria así como el nombre de la empresa suministradora de materiales y de qué partida presupuestaria ha salido dicho importe, material directo, publicidad ...Solicitan también que se les facilite qué personal municipal ha



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

udaltzainak, alkatetza, idazkaritza... Halaber, ikurrina horiek jarri aurreko txostenak eskatu dituzte, txosten tekniko nahiz juridikoak; ahal duenean edo datu guztiak dituenean helarazteko.

trabajado en todo el desarrollo de ese acto si lo ha habido, mantenimiento urbano, txistularis, policia local, gabinete de alcaldía, secretaria...También solicitan los informes previos a su colocación, tanto técnicos como jurídicos, cuando pueda o cuando tenga todos los datos.

Mendoza jaunak (EO BILDU) galdetzen du idatziz jaso nahi duten erantzuna.

Interviene el Sr. Mendoza (E.O. BILDU) para preguntar si quieren recibir la respuesta por escrito.

José Angel Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) buruaz baietsi du eta adierazi du herrian jarritako ikurrinei dagokienez, gustatuko litzaiekeela jakitea nork jarri zituen eta noiz kentzeko asmoa duen alkateak.

El Sr. José Angel Rodriguez (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) asiente a la pregunta y así mismo manifesta que en relación a las ikurriñas puestas en el pueblo, les gustaría saber quiénes fueron los que las colocaron y cuándo tiene intención el Sr. Alcalde de proceder a su retirada.

Alkate jaunak (EO BILDU) erantzun du gai hori Bozeramaileen Batzordean hitz egin zutela, eta, gainera, ondoren, Alderdi Sozialistak bere prentsa oharra atera duela gaiaren inguruan, bertan hitz egin zen guztiaren berri emanez. Bertan esan zuten ikurrina horiek kenduko direla, baina, baita ere esan behar dela, beste testuinguru batean, ikurrin horiek ez dituela udal honek jarri, ez alkatetzak, ez inongo zinegotzik, eta ez direla hemendik finantzatu ere; ezta gutxiago ere. Ez dago inolako harremanik ikurrina horiek jartzearekin. Ikurrina horiek azaltzen direla testuinguru batean non Espainiako bandera jartzera behartzen gaituzten, Espainiako Gobernuko delegatuaren ordezkariak hala behartuta edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ere hala behartuta, udal honen borondatearen kontra, eta momentu konkretu horretan ateratzen dira. Iraganean ere badauzkagu gertakari batzuk oso dramatikoak izan zirenak; konkretuki, 1983ko Madalenetan Espainiako bandera jartzearekin sortu zen egoerari dagozkionak. Kontziente dira horrelako egoerek krispazioa sortzen dutela, tentsioa sortzen dutela eta horrekiko hartuko dituzten neurriekin saiatuko dira oreka bat mantentzen, tentsio edo krispazio hori

Interviene el Sr. Alcalde (E.O. BILDU) respondiendo que ese tema se trató en la Comisión de Portavoces, y que además, el Partido Socialista emitió un comunicado de prensa sobre el tema, dando cuenta de todo lo que allí se habló. Se dijo que se retirarían las ikurriñas, pero también hay que decir que, en otro contexto, no ha sido el Ayuntamiento el que las ha colocado, ni alcaldía, ni ningún concejal, ni se han financiado desde aquí; ni mucho menos. No hay ninguna relación con la colocación de dichas ikurriñas. Esas ikurriñas aparecen en un contexto en el que se les ha obligado a colocar la bandera de España, el representante del delegado de gobierno o el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco así les ha obligado, en contra de la voluntad de este Ayuntamiento, y aparecen en un momento concreto. Sabemos que en el pasado hubo unos acontecimientos muy dramáticos; concretamente los relacionados con la colocación de la bandera española durante las Magdalenas de 1983. Son conscientes de que ese tipo de situaciones crean crispación, crean tensión, y las medidas que adoptarán tendrán el objetivo de mantener un equilibrio, para que esa tensión o crispación no vaya



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

gehiagora joan ez dadin.

José Angel Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du ez dela eztabaidan sartuko, Bozeramaileen Batzordean eztabaidatu zela, ez duela komentatuko prentsa-oharra; bere ustez ez zaiola egindako galdera bakar bat ere erantzun: nor izan den eta noiz kentzeko asmoa duen.

Mendoza jaunak (EO BILDU) erantzun du berriro dioela hiritar batzuek jarri dituztela ikurrinak, erantzun du kenduko direla, baina kontuan izan behar dela gai horrek tentsioa eta ezinegona eragiten duela eta garrantzitsua dela herriko biztanleen artean sortutako emozio eta sentimendu desberdinen arteko oreka lortzea.

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:00 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut autonomia-erkidegoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

a más.

Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que no va a entrar en el debate, que ya se debatió en la Junta de Portavoces, no va a comentar la nota de prensa, considera que las preguntas son sencillas y concretas, y que no se le ha contestado a ninguna de las dos preguntas que ha hecho, quiénes han sido y cuándo tiene intención de retirarlas.

Contesta el Sr. Mendoza (E.O. BILDU) manifestando que vuelve a insistir en que han sido unos ciudadanos los que han colocado esas banderas; ha respondido que se van a quitar pero que hay que tener en cuenta que este tema genera una situación de tensión y crispación y es importante lograr un equilibrio entre las diferentes emociones y sentimientos generados entre los habitantes del pueblo.

----------

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 19:00 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net